



ostiko bidaiari

DIRU ITURRIAK

Gure proiektua aurrera eramateko gure irabazi iturriak finkatzea ezinbestekoa izango da, hau, lana errazteko metodo egokia baita. Iturri hauek zehaztu ahal izateko, gure irabazien nondik norakoa aztertuko dugu.

Gure bezeroak gazteak izango direla kontuan hartuta, prezio eskuragarriak eskaini nahi ditugu haien ekonomikoki bidaiatzeko beharra asetuz, egoera ekonomikoa ona ez baitute. Horretarako, orokorrean prezio baxuak jarriko ditugu eta horrela, bezeroen beharretara egokitu gaitzke. Hori kontuan hartuta, bezeroek gure diru irabazien %75a emango digute; prezio hauek aldakorrak izango dira, hotelak eskaintzen dituen ekintzen arabera (gazte-egunetan prezioak merkeagoak izango dira) eta goi- edo behe-denboraldia den arabera. Gainera, ekonomikoki egoera hobea duten horientzat ere aukera egongo da, oinarrizko zerbitzuez gain, gauza gehiago eskuratzeko, gazteez gain beste edonor ere etor daitekeelako.

Aurrekoaren harira, hotel ugari sortuko ditugunez, beharrezkoa izango da bi hotelen arteko konparazioa egitea prezioek nola jokatuko duten ikusteko. Horretarako, bi eredu egingo ditugu gure bezeroentzat; batetik, oinarrizko eredu izan daitekeena eta bestetik, "*premium*" eredu. Azken horrek, oinarrizko zerbitzuez gain, ekintza bereziak eskainiko ditu, hotelaren arabera desberdinak izango direnak. Bi eredu proposatzea erabaki dugu gure bezeroek egoera ekonomiko desberdinak eduki ditzazketelako, honela, bezero bakoitzarentzat egokituta dagoen zerbait eskainiko dugu.

Eredu basikoari dagokionean, gaua eta nahi izanez gero (eta, noski, gehiago ordainduz) otorduak eskuratu ahal izango dituzte, beste ekintza berezietan parte hartzeko aukera izan gabe, beti ere hauentzat aparte ordaintzen ez badute. Otorduei dagokienez, eguneko menua izango du, betiere hotela non inspiratuta dagoen kontuan hartuta, adibidez, Hawaii'en oinarrituta badago, menuan Hawaiieko gastronomian



ostiko bidaiari

oinarrituta egongo da nagusi, hau da, eredu honek ez du *buffet*-a erabiltzeko aukera emango. Eredu basiko horren gutxi gora beherako prezioa 12€/gaua izango da estantziarengatik, bestalde, bezeroak otorduak nahi baditu 7€ gehiago ordaindu ditzazke egunean, hau da, guztira 19€.

"Premium" ereduari erreferentzia eginez, oinarrizko zerbitzuez gain, ekintza berezietara parte hartzeko aukera izango dute bezeroek. Ekintza hauek hotelaren araberakoak izango dira, adibidez, Ostiko Hawaii-en, surf klase bat, spa goiz bat, lokatzezeko masajea, janaria logelan jateko aukera eta beste hainbat luxuzko zerbitzu eskainiko ditugu. Otorduei dagokionez, hotelaren oinarria izango den herrialdeari erreferentzia egingo dioen *buffet*-a eskainiko dugu. Eredu honen prezioa 30€koa izango da gaueko.

Aurreko guztia aurrera eraman ahal izateko, diru sarrerak beharrezkoak izango dira. Publizitateak irabazien %10a emango digu, EHU/UPV eta Gazte Txartelaren publizitateak hain zuzen ere. Funtsezko sozietateak azaltzean, aipatu genuen bi enpresa hauekin aliantza sortuko genuela. Aliantza honek funtsean bezeroak erakartzeko helburua du, horretarako, enpresek gure publizitatea egingo dute eta guk haiena. Horrez gain, guk EHUko ikasleei eta Gazte Txartela duten gazteei deskontuak eskainiko dizkiegu, eta honen gure kideek dirua emango digute, gure irabazien %10a izango den kantitatea zehazki.

Beste ordainketa iturrietako bat harpidetza prima izango da. Gure hotelak web orri bat izango du ostikobidaiari.eus, bertan harpidetzeko aukera emango da. Horrekin, bezeroek egun, ekintza, etab. berezietan sarrerak zuzenean erreserbatuak edukitzeko aukera izango dute, horrekin batera deskontu bat lortuz. Harpidetza honek izango duen beste abantaila bat zozketak izango dira. Hau da, ekimen bereziak ez dauden hilabetetan zozketak gauzatuko ditugu, hilabete horietan ordaintzen dutena



konpentsatzeko. Harpidetza ez da garestia izango (1,99€ hilabetean), izan ere, gure helburua bezeroek zerbitzu ekonomiko bat eskuragarri izatea da.

Laburtuz, gure irabazi-iturriak (azpiko grafikoan ikusi daitezkeen bezala) honela banatuko dira: publizitateak %10a emango digu, harpidetza-primak %15a eta bezeroek %75a. Banaketa honekin gure enpresak aurrera egitea espero dugu, eta gure zerbitzua eskaintzeaz gain, beste era batzuetara dirua lortzeko aukera paregabea izan daiteke publizitatea eta harpidetza egitea.

Irabazi iturriak

